

7. ERANSKINA: ENPLEGU SAILA	ANEXO 7: ÁREA DE EMPLEO
7.2.- LAGUNTZAK 2025 ARRASATEKO ENPRESENTZAKO: SORTU BERRIAK - NEGOZIOEN ESKUALDATZEAK - JARDUERAREN DIBERTSIFIKAZIOA	7.2.- AYUDAS 2025 PARA EMPRESAS DE ARRASATE: NUEVA CREACIÓN - TRASPASOS DE NEGOCIO - DIVERSIFICACIÓN DE ACTIVIDAD
1.- Atarikoa	1.- Preámbulo
Arrasateko Udala, barne hartzen dituen tokiko ekonomiari eta enpleguari laguntzeko politiken artean, ekintzailetza sustatzeko ildoak garatzen ari da. Horietako bat udalerrian ezartzen diren enpresa-ekimen berrietarako laguntza ekonomikoak dira, 2000. urtetik urtero deitzen direnak. Denbora honetan zehar programa horren ñabardurak egokitzen joan dira. Horrela, jarraian aurkezten diren oinarriak egungo errealitateari erantzun nahi diote, eta baliagarriak izan nahi dute ekintzailetza sustatzeko eta enpresa berriak sortzen ausartzen diren sustatzaileei beharrezko laguntza emateko, ekimen horiek funtsezkoak bait dira Arrasateko enpresa-ehunaren berritzea bermatzeko.	El Ayuntamiento de Arrasate, entre las diversas políticas de apoyo a la economía local y al empleo que contempla, viene desarrollando líneas de promoción del emprendimiento. Una de ellas es la de ayudas económicas a nuevas iniciativas empresariales que se implantan en el municipio, que desde el año 2000 se convoca anualmente. A lo largo de este tiempo se han ido adaptando matices de dicho programa, a fin de adecuarlo a las necesidades de cada momento. Así, las bases que se presentan a continuación tratan de responder a la realidad actual, y pretenden ser de utilidad para fomentar el emprendimiento y prestar el apoyo necesario a los promotores y promotoras que se aventuren en la creación de nuevas empresas, iniciativas que resultan fundamentales a la hora de garantizar la renovación del tejido empresarial de Arrasate.
2.- Programaren helburua eta aplikazio eremua	2.- Objeto y ámbito de aplicación del programa
Oinarri hauen helburua da diru-laguntzen programa arautzea Arrasateko udalerrian enpresak ezartzea sustatzeko, eta ekintzaileen ahalegina laguntzeko.	El objeto de estas bases es regular el programa de subvenciones para promover la implantación de empresas en el municipio de Arrasate, y para apoyar el esfuerzo emprendedor.
3.- Laguntzen onuradunak	3.- Destinatarios/as de las ayudas
Laguntza horiek eskuratzeko, enpresek honako baldintza hauek bete beharko dituzte, laguntzak eskatzen dituztenean: - Enpresak legez eratuta egon beharko du jarduera garatzeko diru-laguntza eskatzen duenean. - Lantokia izan beharko du Arrasaten.	Para acceder a estas ayudas, las empresas deberán cumplir los siguientes requisitos en el momento de solicitarlas: - La empresa deberá estar constituida legalmente para el desarrollo de la actividad en cuestión en el momento de solicitar la subvención. - Deberá disponer de centro de trabajo en Arrasate.

- Jarraian deskribatutako kasuren batekin bat datozen enpresak izan beharko dute: a) Arrasaten ezarriko diren enpresa sortu berriak. b) Beste udalerri batean kokatuta dauden eta Arrasaten lantoki berri bat irekitzen duten enpresak. c) Berriak ez izan arren, aurreko titularraren jardueraren bajaren ondorioz titularra aldatu duten enpresak, belaunaldi-errelebotzat jotzen dena gauzatuz. Belaunaldi-erreleboko kasu horietan, Udalak beretzat gordetzen du laguntzak handitzeko ahalmena, baldin eta aurreko jarduera baten eskualdatze baten ondorioz sortzen badira, eta jarduera hori balio handikoa bada udalerriko sare sozioekonomikoarentzat. d) Dibertsifikatu diren eta 2024 arte garatutakoaz bestelako jarduera berri bat txertatu duten enpresak, dibertsifikazioaren arrazoia bada koiunturan gertatutako funtsezko aldaketaren bat, negozioaren iraupena eragozten duena, izan gertaera orokorra, adibidez osasun larrialdia, legealdaketak,... izan esparru partikularrekoa, hala nola osasun arazoak, familiari lotutakoak, eta abar. - 2024ko urtarrilaren 1etik 2025eko urriaren 31ra bitartean egin beharko dira enpresa berriaren alta, udalerriko establezimendu berria, txanda-kasuan titulartasun-aldaketa eta jarduera berri baten alta. Kasu guztietan, denbora-erreferentziatzat hartuko da Arrasaten jarduteko E/JZn alta emandako data. - a eta b kasuetan, enpresa horretan gutxienez lanpostu egonkor bat sortu beharko da. Lanpostuei atxikitako dedikazioa osoa edo partziala izan daiteke. Lanpostuen zenbaketa hainbat kontratatutako lanaldi partzialen baturaren emaitza izan daiteke; adibidez, lanaldi erdiz kontratatutako bi pertsona lanpostu oso gisa zenbatuko dira. - c eta d kasuetan, ez da nahitaezkoa izango enplegu garbia sortzea, baina	- Deberá tratarse de empresas que se correspondan con alguno de estos supuestos: a) Empresas de nueva creación implantadas en Arrasate. b) Empresas ya existentes con ubicación en otro municipio que abrieran un nuevo centro de trabajo en Arrasate. c) Empresas que sin ser nuevas, hubieran cambiado de titular por cese del titular anterior, llevándose a efecto lo que se entiende por relevo generacional. En estos casos de relevo generacional, el Ayuntamiento se reserva la potestad de incrementar las ayudas para empresas que surjan por un traspaso de una actividad anterior que se considere de alto valor para el tejido socio económico del municipio. d) Empresas que se hubieran diversificado e incorporaran una actividad nueva distinta de la desarrollada hasta 2024, diversificación motivada por cambios sustanciales acaecidos recientemente que dificultasen la pervivencia del negocio, pudiendo ser tanto cambios de carácter general, por ejemplo, crisis sanitaria, legislación, etc, como de índole particular, como pueden ser razones de salud, familiares, etc. - Tanto el alta como nueva empresa, como el nuevo establecimiento en el municipio, como el cambio de titularidad en caso de relevo, como el alta en una nueva actividad, deberán haber tenido lugar a partir del 1 de enero de 2024, hasta el 31 de octubre de 2025. En todos los casos, se tomará como referencia temporal la fecha de alta en el IAE para ejercer en Arrasate. - En los casos a y b, deberá haberse creado en dicha empresa al menos un puesto de trabajo estable. La dedicación adscrita a los puestos de trabajo podrá ser completa o parcial. El cómputo de puestos podrá resultar de la suma de las jornadas parciales de varios contratos, por ejemplo, dos personas contratadas a 1/2 jornada se computarían como 1 puesto de trabajo completo. - En los casos c y d, no será obligatoria la creación de empleo neto, pero sí se deberá
---	--

titulartasuna aldatu edo jarduera berria abian jarri aurreko 12 hilabeteetako batez besteko langileen plantillari eutsi beharko zaio. - Egonkortzat hartuko dira bai lan autonomoaren araubidearen pean sortutako lanpostuak, bai Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrari atxikitakoak. Azken horien kasuan, kontratuen iraupena mugagabea izango da. - Enpresa onuradunen tamainari dagokionez, ezin izango dute 15 langile baino gehiago izan. - Enpresa eskatzaileak gutxienez 3.000 euroko hasierako inbertsioa egina izan beharko du abian jartzeko. - Inbertsio konputagarrien barruan sartuko dira aktibo finkoak (altzariak, jarduera gauzatzeko lokalak egokitzeak, obrak, makinak, lan-tresnak, ekipo informatikoak, lan-ibilgailuak ...) eta jarduera hasteko beharrezkoak diren gastuak, hala nola administrazio- eta lege-izapideei dagozkionak, aholkularitza, eskualdaketak, frankiziak eta antzeko beste batzuk. Nolanahi ere, zenbaketa horretatik kanpo geratuko dira esplizituki ondasun higiezinak inbertsioak. Gastu horiek guztiak 2024eko urtarrilaren 1etik 2025ko urriaren 31 bitartean burutu beharko dira. Azpimarratu behar da, inbertsioen zenbaketa egiterakoan, ez dela kontuan hartuko aurkeztutako fakturen BEZa. - Arau orokor gisa, enpresa bakoitzak behin bakarrik izango du laguntza horiek eskuratzeko aukera. Salbuespen gisa, “d” motakoak beren negozioa jatorrizko aktibitatea funtsean dibertsifikatuz birbideratu behar izan duten enpresek eskatu ahal izango dituzte berriro laguntzak.	haber mantenido la plantilla de trabajadores/as respecto a la plantilla media de trabajadores/as durante los 12 meses anteriores al cambio de titularidad o a la puesta en marcha de la nueva actividad. - Tendrán la consideración de estables tanto los puestos de trabajo creados bajo el régimen de trabajo autónomo, como los adscritos al régimen general de la Seguridad Social. En el caso de estos últimos, la duración de los contratos deberá ser indefinida. - En cuanto al tamaño de las empresas beneficiarias, estas no podrán disponer de una plantilla mayor a 15 trabajadores/as. - La empresa solicitante deberá haber realizado una inversión mínima de 3.000 € en el momento de solicitar esta subvención. - Los conceptos de inversión computables incluirán tanto activos fijos (mobiliario, obras de acondicionamiento de locales para el desempeño de la actividad, maquinaria, herramientas de trabajo, equipos informáticos, vehículos de trabajo...), como aquellos gastos necesarios para el establecimiento inicial de la actividad, tales como gastos por tramites administrativos y legales, asesoría, traspasos, franquicias, u otros similares. En todo caso, quedarán explícitamente excluidas de este cómputo las inversiones inmobiliarias. Todos estos gastos deberán haber tenido lugar entre el 1 de enero de 2024 y el 31 de octubre de 2025. Conviene subrayar que a la hora de realizar el cómputo de las inversiones, no se tendrá en cuenta el IVA de las facturas presentadas. - Como norma general cada empresa sólo tendrá opción a acceder a estas ayudas una sola vez. Excepcionalmente, podrán volver a optar a ellas aquellas empresas del tipo señalado como “d” que se hubieran visto obligadas a reconducir su negocio mediante la diversificación sustancial de su actividad originaria.
Honako kasu hauetan ezin izango da laguntzarik jaso:	Quedan excluidos de la posibilidad de obtener estas ayudas los siguientes supuestos:

- Enpresaren sustatzaileek edo laguntza horiek emateko zenbatu beharreko postuen titularrek jarduera berean edo antzekoan titular gisa jardun badute, banaka edo sozietatean, enpresa berria abian jarri aurreko 12 hilabeteetan, salbu eta egoera horretan lan-kooperatibetako bazkide gisa egon badira. Enpresak laguntzak jasotzeko aukera izango du sortutako gainerako lanpostuak baliatuz, betiere oinarri hauetan eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte. - Bezero bakarra duten enpresak (fakturazioaren %75 hartzen dutenak). Egoera hori kontuan hartuko da jardueraren lehenengo 6 hilabeteetatik aurrera. - Fakturazio-bolumen nagusia ($\geq 70\%$) Administrazioarekin egindako kontratuei lotuta duten enpresak. - Partaidetza publikoa duten enpresak. - % 50 baino gehiagoko kapital soziala laguntza hauek eskuratzeko beharrezko baldintzak betetzen ez dituzten beste enpresa edo erakunde batzuen enpresak.	- Cuando los promotores/as de la empresa o los/las titulares de los puestos a computar para conceder estas ayudas, hayan ejercido como titulares, individualmente o en sociedad, en la misma o similar actividad en los 12 meses anteriores a la puesta en marcha de la nueva empresa, salvo que hubieran concurrido en dicha circunstancia como socias o socios de cooperativas de trabajo. La empresa podrá optar a las ayudas haciendo valer al resto de los puestos de trabajo creados, siempre que éstos reúnan las condiciones exigidas por estas bases. - Empresas con un único cliente (que suponga el 75% de la facturación). Esta circunstancia se tendrá en cuenta a partir de los 6 primeros meses de ejercicio de la actividad. - Empresas cuyo principal volumen de facturación ($\geq 70\%$) esté ligado a contratos con la Administración. - Empresas con participación pública. - Empresas cuyo capital social pertenezca en más del 50% a otras empresas o entidades que no cumplan los requisitos necesarios para acceder a estas ayudas.
4.- Laguntzen zenbatekoa	4.- Cuantía de las ayudas
4.1.- Oro har:	4.1.- con carácter general:
<u>Oinarrizko zenbatekoa :</u> Oinarrizko zenbatekoa urtero eguneratuko da urteko KPIaren arabera, betiere indizea positiboa bada; indize hori negatiboa bada, aurreko urteko zenbatekoari eutsiko zaio. 2024aren amaieran urteko KPIa 2,8 izan da, INEren arabera, beraz, 2025eko deialdi honetarako oinarrizko zenbatekoa 5.487 € izango da.	<u>Cantidad base :</u> Esta cantidad base se actualizará cada año en función del IPC anual, siempre que haya resultado un índice positivo; en caso de que dicho índice sea negativo, se mantendría la cuantía del año anterior. El IPC anual a fin de 2024 ha sido 2,8 según lo publicado por el INE, por tanto, la cantidad base para esta convocatoria de 2025 será de 5.487 €.
3.000 €-tik beherako inbertsioa egiten duten enpresek ez dute programa honetako diru-laguntza jasotzeko aukerarik izango.	Las empresas que realicen una inversión inferior a 3.000 € no optarán a subvención a través de este programa.
Inbertsio-kontzeptu konputagarriak oinarri hauetako 3. artikuluan adierazitakoak izango dira.	Los conceptos de inversión computables serán los reflejados en el artículo 3 de estas bases.

<u>Kenkariak:</u> Enpresa onuradunak Arrasateko Udalak parte hartzen duen beste programa batzuen bidez laguntzak jaso dituen kasuetan, programa honen bidez legokiokkeen diru-laguntzaren guztizko zenbatekoari kendu egingo zaizkio enpresak beste programa horien bidez jasotako zenbatekoak. Alde horretatik, Eskualdeko Garapen Agentziaren Enpresa Ekimenen Zentroa- EEZko lokalen erabileraren onuradun diren enpresen kasuan, diru-laguntzaren guztizko zenbatekoari % 20 kenduko zaio.	<u>Deducciones:</u> En aquellos casos en que la empresa hubiera percibido ayudas a través de otros programas en los que participe el Ayuntamiento de Arrasate, a la cantidad total de la subvención que correspondiera a través del presente programa, se deducirían las cantidades percibidas por la empresa a través de dichos otros programas. En este sentido, en el caso concreto de empresas beneficiarias del uso de locales del Centro de Iniciativas Empresariales- CIE de la Agencia de Desarrollo Comarcal, se les deducirá un 20% de la cantidad total de la subvención que correspondiera.
<u>4.2.- Enplegu garbia sortzen duten enpresak:</u>	<u>4.2.- En el caso de empresas que creen empleo neto:</u>
3. artikuluan a eta b motako gisa deskribatuak:	Descritas en el artículo 3 como de tipo a y b:
Kopuru osoa:	Cuantía total:
Diru-laguntzaren kopuru osoa honela kalkulatu da: kopuru finkoari (kasu bakoitzean baliatzen den lehenengo lanpostuari dagokion ehunekoa) dagozkion kopuru aldakorrekin batuz eta, era berean, hala badagokio, oinarri hauetan aurreikusitako kenketak eginez.	La cuantía total de la subvención se obtendrá sumando la cantidad fija (porcentaje correspondiente al primer puesto de trabajo que se haga valer en cada caso) con las cantidades variables que pudieran proceder en cada caso, y efectuando asimismo, si procediera, las deducciones previstas en las presentes bases.
Kopuru finkoa:	Cantidad fija:
Kopuru finkoa, kasu bakoitzean baliatzen den lehenengo lanpostuari dagokionez, egindako inbertsioaren arabera kalkulatu da, oinarrizko zenbatekoan oinarrituta, honela:	La cantidad fija, relativa al primer puesto de trabajo que se haga valer en cada caso, se calculará en relación a la cantidad base, en función de la inversión realizada, de la siguiente manera:
- 60.000 € baino gehiago %100 (5.487 €) - > 30.000 < 60.000 € 85% (4.664€) - > 12.000 < 30.000 € 70% (3.841€) - > 6.000 < 12.000 € 55% (3.018€) - > 3.000 < 6.000 € 40% (2.195€)	- Superior a 60.000 € 100% (5.487 €) - > 30.000 < 60.000 € 85% (4.664€) - > 12.000 < 30.000 € 70% (3.841€) - > 6.000 < 12.000 € 55% (3.841€) - > 3.000 < 6.000 € 40% (2.195€)
Kopuru aldakorrak:	Cantidades variables:

Aurreko atalean ezarritakoaren arabera lortutako zenbateko finkoari honako igoera hauek aplikatuko zaizkio:	A la cantidad fija obtenida según lo establecido en el apartado anterior, le serán de aplicación los siguientes incrementos:
- %20 igoko da diru-laguntza emateko kontuan hartutako lanpostua emakume batek betetzen badu. - % 20 handituko da diru-laguntza emateko kontuan hartutako lanpostua % 33ko edo gehiagoko minusbaliotasun ziurtatua duen pertsona batek betetzen badu, betiere LGSa baino pentsio handiagoa jasotzen ez badu. - %20 handituko da, enpresa onuradunaren jarduera nagusia nekazaritza eta abeltzaintzako sektorekoa bada. - % 20 handituko da sortutako jarduera lehendik zegoen beste jarduera bat eskualdatzetik badator, baldin eta hori balio handikoa bada udalerriko ehun sozioekonomikoarentzat. - %20 handituko da, erdigunetik kanpoko hiri-auzo batean kokatutako establezimendua bada.	- Se incrementará en un 20% si el puesto de trabajo considerado para otorgar la subvención es ocupado por una mujer. - Se incrementará en un 20% si el puesto de trabajo considerado para otorgar la subvención es ocupado por una persona con minusvalía certificada del 33% o superior, siempre que no sea beneficiaria de una pensión superior al SMI. - Se incrementará en un 20% si la actividad principal de la empresa beneficiaria corresponde al sector agropecuario. - Se incrementará en un 20% si la actividad creada proviniera del traspaso de otra existente con anterioridad, que se considere de alto valor para el tejido socio económico del municipio. - Se incrementará en un 20% si se trata de un establecimiento ubicado en un barrio urbano al margen de la zona centro.
- % 15 handituko da diru-laguntza emateko kontuan hartutako lanpostuaren titularra 30 urtetik beherakoa bada. - % 15 handituko da diru-laguntza emateko aintzat hartutako lanpostua honako kolektibo hauetako bateko pertsona batek betetzen badu: iraupen luzeko langabeak (LANBIDEn langabe gisa izena emanda daudenak, kontratatu aurreko 12 hilabeteetatik gorako antzinatasunarekin) edo 45 urtetik gorakoak.	- Se incrementará en un 15% si la persona titular del puesto considerado para otorgar la subvención fuera menor de 30 años. - Se incrementará en un 15% si el puesto de trabajo considerado para otorgar la subvención es ocupado por una persona perteneciente a alguno de los siguientes colectivos: desempleados de larga duración (inscritos como desempleados en Lanbide con antigüedad mayor a 12 meses inmediatamente antes de su contratación) o mayores de 45 años.
Gehikuntza portzentaje horiek ezin izango dira metatu, eta kasu bat baino gehiago batera emango balira, eskatzailearentzako onuragarriena ezarriko da.	Dichos porcentajes de incrementos no serán acumulables, y en el caso de concurrencia de varios supuestos se aplicará únicamente el que resulte más beneficioso para la empresa solicitante de la ayuda.
Lanaldi partzialeko kasuetan, lanpostu bakoitzari dagokion diru-laguntzaren zenbatekoa lanaldiaren ehunekoaren arabera izango da.	En caso de puestos de trabajo a tiempo parcial, la cuantía de la subvención por cada puesto será la proporcional al porcentaje de jornada del que se trate.
Lanpostu batez baino gehiagoz baliatzen diren enpresen kasuan, diru-laguntzaren	En el caso de empresas que hagan valer más de un puesto trabajo, la cuantía total de la

kopuru osoa oinarritzko kopuruaren %50ean handituko da (2.743 € deialdi honetarako) bigarren eta ondorengo lanpostu bakoitzeko, postu hauei kopuru aldakorren gehikaririk aplikatu gabe.	subvención se incrementará en un 50% de la cantidad base (2.743 € en esta convocatoria) por cada puesto segundo y sucesivos, sin aplicarse a estos puestos incrementos de cantidades variables.
Inola ere ez da laguntzarik emango enpresa berean sortutako 10 lanpostu baino gehiagorengatik.	En ningún caso se concederán ayudas por más de 10 puestos de trabajo creados en una misma empresa.
Bestalde, azpimarratu behar da programa honen bidez eginiko eskaeretan aurkeztutako iraupen mugagabeko kontratuak ezingo direla erabili <i>“Diru laguntzak Arrasateko enpresetan herriko langabeak kontratatzeke”</i> programaren bitartez diru laguntza lortzeko. Kasu horietan, enpresak bi laguntza-lerroetako bat aukeratu beharko du.	Por otro lado, señalar que los contratos de trabajo de duración indefinida incluidos en las solicitudes que se realicen a través de este programa no se podrán hacer valer para solicitar subvención a través del programa de <i>“Subvenciones para contratar desempleados/as de Arrasate en empresas del municipio”</i> , siendo necesario en dichos casos optar por una de las dos líneas de ayuda.
4.3.- Enplegu garbirik sortzen ez duten enpresen kasuan:	4.3.- En el caso de aquellas empresas que no creen empleo neto:
3. artikuluan c eta d motako gisa deskribatuak.	Descritas en el artículo 3 como de tipo c y d.
Kopuru osoa:	Cuantía total:
Diru-laguntzaren kopuru osoa honela kalkulatu da: kopuru finkoari dagokion kopuru aldakorrarekin batuz eta, era berean, hala badagokio, oinarri hauetan aurreikusitako kenketak eginez.	La cuantía total de la subvención se obtendrá sumando la cantidad fija con la cantidad variable que pudiera proceder en cada caso, y efectuando asimismo, si procediera, las deducciones previstas en las presentes bases.
Kopuru finkoa:	Cantidad fija:
Diru-laguntzaren kopuru finkoa oinarritzko zenbatekoaren %50ekoa izango da 12.000 eurotik gorako inbertsioak egiaztatzen dituzten enpresentzat (hau da, 2.743 €), edo oinarritzko kopuruaren %25ekoa 3.000 eta 12.000 € arteko inbertsioak egiaztatzen dituztenentzat (hau da, 1.371 €).	La cantidad fija de la subvención será del 50% de la cantidad base para los casos que acrediten inversiones superiores a 12.000 € (es decir, 2.743 €), o del 25% de dicha cantidad base para los casos con inversiones de entre 3.000 y 12.000 € (es decir, 1.371 €).
Kopuru aldakorrak:	Cantidades variables:
Aurreko atalean ezarritakoaren arabera lortutako kopuru finkoari honako igoera hauek aplikatuko zaizkio:	A la cantidad fija obtenida según lo establecido en el apartado anterior, le serán de aplicación los siguientes incrementos:

- %20 handituko da, enpresa onuradunaren jarduera nagusia nekazaritza eta abeltzaintzako sektorekoa bada. - % 20 handituko da sortutako jarduera lehendik zegoen beste jarduera bat eskualdatzetik badator, baldin eta hori balio handikoa bada udalerriko ehun sozioekonomikoarentzat. - %20 handituko da, erdigunetik kanpoko hiri auzo batean kokatutako establezimendua bada.	- Se incrementará en un 20% si la actividad principal de la empresa beneficiaria corresponde al sector agropecuario. - Se incrementará en un 20% si la actividad creada provieniera del traspaso de otra existente con anterioridad, que se considere de alto valor para el tejido socio económico del municipio. - Se incrementará en un 20% si se trata de un establecimiento ubicado en un barrio urbano al margen de la zona centro.
Gehikuntza portzentaje horiek ezin izango dira metatu.	Dichos porcentajes de incremento no serán acumulables.
5.- Laguntzen izapidetzea	5.- Tramitación de las ayudas
5.1.- eskabideak aurkeztea	5.1.- presentación de solicitudes
Dirulaguntza eskabideak aurkeztu ahalko dira:	Las solicitudes de subvención podrán presentarse:
- Udalaren egoitza elektronikoaren bidez https://www.arrasate.eus/eu/tramiteak/esk-abide-orokorra (Pertsona juridikoei ezinbestean bide hau erabili beharko dute)	- A través de la sede electrónica del Ayuntamiento, en la dirección https://www.arrasate.eus/es/tramites-online/portal-del-ciudadano (obligatorio para las personas jurídicas)
- Aurrez aurre BAZen (Herritarrentzako Arreta Zerbitzua), pertsona fisikoentzako aukerakoa.	- Presencialmente en el BAZ (Servicio de Atención a la Ciudadanía), opcional para las personas físicas.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako gainerako moduetan.	- En las demás formas legalmente previstas conforme a la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
BAZ, jendaurreko ordutegia: - Astelehenetik egubakoitzera: 7:30 - 15:00 - Eguenak: 7:30 - 18:30 - Zapatuak: 9:00 - 13:00 - Abuztuaren astelehenetik egubakoitzera arte, 8:30-14:00	BAZ, horario de atención al público: - De lunes a viernes 7:30 - 15:00 - Jueves: 7:30 - 18:30 - Sábados: 9:00 - 13:00 - En agosto, de lunes a viernes 8:30-14:00
Eskaerak aurkezteko epea irekita egongo da oinarri hauek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta ondorengo egunetik aurrera, 2025eko urriaren 31 arte.	El plazo para solicitar las ayudas que regula esta convocatoria permanecerá abierto desde el día siguiente de la publicación de estas bases en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, hasta el 31 de octubre de 2025.

5.2.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa	5.2.- Documentación a aportar
- Enpresa proiektuaren deskribapena - Inbertsioen plana eta inbertsio fakturen kopiak. - Enpresaren bezeroen zerrenda eta horiei azken 12 hiletan saldutakoen egiaztagiria, hala dagokionean. - Dirulaguntza eskatzen deneko lanpostuen titulardunen NAREN kopia, hala dagokionean.	- Descripción del proyecto empresarial. - Plan de inversiones y copias de facturas de inversión. - Relación de clientes de la empresa y justificante de las ventas realizadas a los mismos en los últimos 12 meses, cuando proceda - Copia del DNI de las personas titulares de los puestos por los que se solicita la ayuda, cuando proceda.
- Bankuko kontuaren titulartasun agiria. - Dirulaguntza eskatzen deneko lanpostuen kontratuen kopia, hala dagokionean. - Sozietatearen eraketa eskrituraren, estatutuen eta Merkataritza Erregistroan izena emandako agiriaren kopiak, hala dagokionean. - Gizarte Segurantzako erregimenean altan egotearen egiaztagiria - Arrasaten IEZn alta egiaztagiria - Jarduera irekitzeko edo hasiera emateko komunikazioa, hala dagokionean - Jarduera lizentzia munizipala, hala dagokionean	- Certificado de titularidad de cuenta bancaria. - Copia de los contratos por los que se solicita la subvención, cuando proceda. - Copias de la Escritura de Constitución de la sociedad, Estatutos e Inscripción en el Registro Mercantil, cuando proceda. - Justificante de alta en el régimen correspondiente de la Seguridad Social. - Justificante de alta en el IAE en Arrasate - Comunicación de apertura o/ inicio de actividad, si procediera. - Licencia municipal de actividad, si procediera
- Dirulaguntza eskatzen deneko langileen bizitza laboralaren ziurtagiria, hala dagokionean. - Dirulaguntza eskatzen deneko langile bakoitzaren adierazpen erantzulea, oraingo enpresan sartu aurreko 12 hiletan jarduera berean edo antzekoan, banaka edo sozietatean, titular moduan jardun ez izanari buruz, hala dagokionean. - Zerga obligazioetan eta Gizarte Segurantzaren egunean egotearen ziurtagiri eguneratuak. Ulertuko da ordainketa-egoera erregularrean ere badagoela atzerapena lortu duen enpresa eta atzeratutako zorrari buruz agiriz kreditatzen duena. (*)	- Certificado de vida laboral de los/las trabajadores/as por los que se solicita subvención, cuando proceda. - Declaración responsable de cada trabajador/a por el que se solicita subvención, relativa a no haber ejercido como titular, individualmente o en sociedad, en la misma o similar actividad en los 12 meses anteriores a su incorporación en la actual empresa cuando proceda. - Certificados actualizados de estar al corriente en sus obligaciones tributarias con la Seguridad Social. Se entenderá como situación regular también aquella en que la empresa hubiera obtenido aplazamiento de deuda y lo acredite documentalmente. (*)
- Adierazpen erantzulea, enpresak eskatu edo jaso dituen beste dirulaguntza batzuei buruz. - Eskualdatzean eskuratutako enpresaren plantillari eusteari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, hala badagokio.	- Declaración responsable referente a otras subvenciones que haya solicitado o percibido la empresa. - Declaración responsable referente al mantenimiento de la plantilla de la empresa adquirida en traspaso, cuando proceda.

- Arrasateko Udalak, beharrezko iritziz gero, kasu bakoitzean eska lezakeen beste dokumentazio gehigarri bat.	- Otra documentación adicional que el Ayuntamiento de Arrasate, estimándola necesaria, pudiera requerir en cada caso.
(*) Dirulaguntzen oinarri orokorren 7.g) artikuluan jasotzen den legez, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak 28.artikuluan aitortzen duenari jarraiki, Arrasateko Udalak dokumentu horiek kontsultatu edo eskuratu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu.	(*) Tal y como se recoge en el artículo 7.g) de las bases generales de las subvenciones, tal y como se reconoce en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, el Ayuntamiento de Arrasate podrá consultar o recabar dichos documentos, salvo que el interesado se oponga a ello.
5.3.- Eskaerak ebatzi	5.3.- Resolución de solicitudes
Eskatzen den denboran eta eran eskabideak aurkeztu eta gero, Udalak jaso ahala horiek ebatzen joango da, gehienez 3 hilebeteko epean eskaera aurkeztu zenetik, eta erabaki horren berri emango dio intereseko enpresari..	Una vez presentadas las solicitudes en tiempo y forma requeridos, el Ayuntamiento resolverá las solicitudes conforme las vaya recibiendo, como máximo en el plazo de 3 meses desde que se presente la solicitud y dará a conocer dicha resolución a la empresa interesada.
5.4.- Ordaintzeko era	5.4.- Forma de pago
Aitortutako diru laguntzaren ordainketa bi epetan gauzatuko da: - %50, diru laguntza aitortzea erabakitzen den unean - Gainerako % 50a diru laguntza aitortzeko udal akordioa hartu eta sei hilabetera, Udalak egiaztatu ondoren enpresak mantendu dituela Arrasaten duen jarduera eta diru-laguntza hori lortzeko baliatutako lanpostuak. Udalak egiaztapen hori egin ahal izateko, enpresa onuradunak honako dokumentazio hau aurkeztuko dio: - Foru Ogasunaren ziurtagiria egiaztatzen duena jarduera altan jarraitzen duela diru laguntza aitortzeko akordioa hartu eta sei hilabetera. - Diru-laguntza hau emateko eta zenbatekoa kalkulatzeko kontuan hartu diren lanpostuen titularren bizitza laboralaren agiri eguneratua. Enpresaren aldetik betebeharren bat bete ezean, aitortutako diru laguntzaren bigarren zati hori kobratzeko eskubidea galduko luke.	El pago de la subvención concedida se llevará a efecto en dos plazos: - Un 50% en el momento en que se resuelva conceder la subvención - El 50% restante a los seis meses de la adopción del acuerdo de concesión de la subvención, tras la comprobación por el Ayuntamiento de que la empresa mantiene tanto su actividad en Arrasate, como los puestos de trabajo que se hicieron valer para obtener esta subvención. A fin de que el Ayuntamiento pueda realizar la mencionada comprobación, la empresa beneficiaria le presentará la siguiente documentación: - Certificado emitido por Hacienda Foral de que la actividad se mantiene en alta a los seis meses de adoptarse el acuerdo de concesión de la subvención. - Vida laboral actualizada de las personas cuyos puestos de trabajo se hubieran tenido en cuenta para la concesión y cálculo de la cuantía de esta subvención. En caso de incumplimiento por parte de la empresa de alguna de sus obligaciones, perdería el derecho a cobrar esta segunda parte la subvención concedida.

6.- Programaren baliabide ekonomikoak	6.- Disponibilidad económica
Programa honen 2025erako deialdiak 30.000 €ko zuzkidura du, eta 2025eko Udal Aurrekontuko 1.0710.480.241.20.00 “Enpresa Berriak Sortzeko Laguntza Fondoa” kontu sailaz baliatuko da.	La convocatoria 2025 de este programa cuenta con una consignación de 30.000 € que se canalizará a través de la partida 1.0710.480.241.20.00 “Enpresa Berriak Sortzeko Laguntza Fondoa” del Presupuesto Municipal 2025.
Ezarritako diru kopurua agortutakoan bukatutzat emango da programa, udalak propio erabaki ezean kreditua handitzea.	El programa se dará por concluido cuando su consignación presupuestaria se agote, a no ser que el Ayuntamiento expresamente decida aumentar dicho crédito.
7.- Beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna	7.- Compatibilidad con otras subvenciones
Laguntza hori ez da bateragarria izango Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak Ekintzaileei Laguntzeko Programaren bidez emandako laguntzekin. Arrasateko Enpresentzako Laguntzak eta lehen aipatutako laguntzak eskuratzen dituzten enpresek horietako bat aukeratu beharko dute.	Esta ayuda será incompatible con las ayudas otorgadas por Lanbide –Servicio Vasco de Empleo a través del Programa de Apoyo a las Personas Emprendedoras. Las empresas que tuvieran acceso a las ayudas del programa que nos ocupa de Subvenciones a Empresas de Arrasate y a la ayuda referida anteriormente, deberán optar por una de ellas.
8.- Gorabeherak	8.- Incidencias
Enpresa onuradunek laster baten adierazi behar diote Arrasateko Udalari, dirulaguntza eman zeneko unean 11mpresa horiek biltzen zituzten baldintzak neurriren batean aldatuz gero ezer.	Las empresas beneficiarias deberán informar con prontitud al Ayuntamiento de Arrasate sobre eventuales cambios que supusieran alterar en alguna medida las condiciones reunidas por dichas empresas en el momento en el que les fue concedida la subvención.
9.- Programa kudeatuko duen Udal Saila.	9.- Unidad encargada de la gestión del programa.
Enplegu Saila arduratuko da programa honetara aurkezten diren eskabideak izapidetzeaz, oinarri hauetan ezarritakoaren arabera.	El Departamento de Empleo se ocupará de la tramitación de las solicitudes que se presenten a este programa, conforme a lo establecido en estas bases.
10.- Aplikatu beharreko araudia.	10.- Normativa de aplicación
Oinarri-arauotan aurreikusita ez dagoen guztian, hauek aplikatuko dira: Arrasateko Udalaren diru-laguntzak ematea arautzen duen Ordenantza, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra eta indarrean dauden arauak, gai honi aplikatu dakizkikeenak.	En todo lo no previsto en las presentes bases, será de aplicación la Ordenanza reguladora de la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Arrasate, la Ley 38/2003, General de Subvenciones, y demás normativa vigente aplicable a esta materia.

